



Bezero erlazioa

Gorilan, bezeroak dira gure lehentasuna. Denda fisikoan, online plataforman eta sare sozialen bidez, harreman hurbila eta erraza eskaintzen dugu. Gure helburua da konfiantza sortzea, produktuekin pozik egon daitezen eta haien ongizatea hobetzen laguntzea.



Denda

Gorilaren denda fisikoan, bezeroek gure produktuak zuzenean ikusi eta probatzeko aukera dute, arropa eta osagarrien kalitatea egiaztatuz. Gure taldeak aholkularitza pertsonalizatua ematen die produktu egokienak aukeratzeko eta ongizate-prozesuan laguntzeko.

Gainera, erosketaren prozesua erraza eta segurua da, eta adin-mugen kasuan, gurasoen baimenari buruzko informazioa ere ematen dugu. Ingurune honek konfiantza eta komunitate-sentimendua indartzen ditu, Gorilarekin harreman estuago bat sortuz.

Online

Gure online dendan, bezeroekiko harremana erraza eta hurbila izatea nahi dugu. Produktuak modu argian aurkezten ditugu, eta edozein zalantza azkar erantzuten dugu. Bezeroen iritziak erakusten ditugu konfiantza sortzeko, eta erosketaren jarraipena egiten dugu, bezeroa beti babestuta senti dadin.



Sare sozialak

Norbait ez badago ados, erreklamazio horiek ere jasotzen ditugu, eta kexak konpontzen saiatzen gara. Bezero guztiekin ahalik eta harreman gertuena izaten saiatzen gara, gure konfiantza osoa emanez, pozik egon daitezen gurekin eta saltzen duguna gustura eros eta kontsumitu dezaten.

